



ARG.: Ben Kerckx, Pixabay.

Eragozpenak badituzten arren, **maskarak eraginkorrak dira**

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute · Elhuyar Zientzia

COVID-19aren kudeaketan, hasieratik, eztabaida piztu zen maskarekin, ez baitzegoen onura eta kalte potentzialen inguruko ebidentzia zuzen eta behin betikorik SARS-CoV-2 birusarekin. Pandemia luzatu ahala, sortu da literatura zientifikoa, eta, hura aztertuta, [maskaren inguruko review bat argitaratu du *Annals of Internal Medicine* aldizkariak](#). Hemen emaitzak.

Ikerketek erakutsi dute maskarek, batez ere, kutsatutako pertsonen birusa besteei transmititzea saihesten dutela; baina badute nolabaiteko babes-efektua ere. Kanadan, esaterako, maskarek

% 25 murriztu dute transmisio komunitarioa. Izan ere, birusa duten pertsonen artean, % 20-30 asintomatikoak dira, eta beste hainbeste presintomatikoak. Horiek birusa ez zabaltzea da maskarek

betetzen duten funtzio nagusia. Aireztapena eskasa den lekuetan eta pertsona asko elkartzen direnean maskarak erabiltzea gomendatu dute zientzialariek, OMEk bezalaxe.

Aerosolekiko iragazte-propietateak desberdinak dira maskara-motaren arabera. Maskara medikoak oihalezkoak baino eraginkorragoak dira, batez ere barrutik kanporako iragazketan, baina ikertzaileek nabarmendu dute ingurumen-arazo larri bat sortzen ari direla, polimero ez-birziklagarriez eginda daudelako, eta oihalezkoak erabiltzearen alde egin dute.

“Maskarek sortutako eragozpenak kulturalak ere badirela ikusi dute”

Arnas partikulen tamaina

Infekziorako sarrera nagusiak zein diren ere argitu da. Giza zelulek birusa ezagutzeko baliatzen duten proteina aho-sudurretako mukosan, arnas bideetan eta biriketan azaltzen da; hortaz, horiek dira birusaren sarrera nagusiak. Infektatuta dagoen pertsona batek hitz egiten duenean, zabaltzen dituen aireko partikulak tamainaren arabera baneratzten dira inguruko arnas aparatuan: handienak, tantatxoak (100-200 mm), ahoko eta sudurreko mukosetara iristen dira, eta haiek infekta ditzake; aerosol inhalagarriak (10-100 mm) sudurreraino eta faringeraino inhalatu ohi dira, barrurago iritsi gabe; aerosol torazikoak (5-15 mm), ordea, arnas aparatuan barrurago sartzen dira, trakeara eta bronkioetara iritsita; eta arnas aerosolak (2,5-5 mm) arnasbide txikienetaraino iristen dira, albeoloetaraino.

Maskaren arazoak kulturalak ere badira

Ikertzaileek aitortzen dute maskarek deserosotasuna, arnasa hartzeko zailtasun subjektiboa, erreakzio alergiko txikiak, buruko mina eta komu-

nikatzeko zailtasunak eragiten dituztela jende askorengan, baina klinikoki ez da esanguratsua nola eragiten dioten gasen elkartrukeari, atsedenean dauden pertsona osasuntsuen artean behintzat.

Maskaren derrigorrezko erabilerak, ordea, hiru giza behar unibertsal baldintzatzen ditu, adituen esanean: autonomia (norberaren ekintzak askatasunez aukeratzeko gaitasuna), harreman psikologikoa (besteekin sozialki lotura estua dugula sentitzea) eta pandemiari aurre egiteko eraginkorrak garen sentipena. Horiek guztiak, neurri batean, kulturalak ere badirela ikusi dute, herrialde batetik bestera aldatzen baita pertzepzioa. Mendebaldeko herrialdeetan, maskara nahitaez erabiltzeak harremanak baldintzatu eta autonomia mehatxatzen duen sentsazioa dago, eta maskarekiko erresistentzia sortzen du. Ekialdeko herrialdeetan, ordea, ez du halakorik sortzen. Batzuetan, hango herritarraren konformismori edo izaera kolektibo handiagoari egotzen zaio, baina antropologoek diote ziurgabetasunaren aurrean kontrol-sentsazioa berreskuratzeko erabiltzen dutela maskara; nola-bait, kutsatuta dagoenari muga ezartzeko. Hortaz, ekialdean, maskara erabiltzeak handitu egiten du autonomiaren, kideatasunaren eta eraginkortasunaren sentsazioa.

Alabaina, onartu dute askatasun pertsonala urra dezakeela erabileraren nahitaezkoa den kasuetan, eta ez dela erraza komunikazio-beharrak eta transmisio birala murrizteko beharra orekatzea. Adibidez, maskara gardenek ezpainak irakurtzen eta aurpegia ikusten uzten dute, baina ez dira eraginkorrak iragazketan. Hortaz, premiazkoa ikusten kalte txikiagoa eragingo duten eta,aldi berean, erosoagoak eta eraginkorragoak diren maskarak ikertu eta eskura jartzea. ●



**Albiste osoa
webgunean**